



## DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

### INGURUMEN TEKNIKARI LANPOSTUA BETETZEKO MEREZIMENDUEN BALORAZIO BATZORDEA

Arrasaten, 2016ko martxoaren 17an.

Mankomunitatearen egoitzan, goizeko 9:00etan, Balorazio Batzordeko kide hauek bildu dira:

#### Lehendakaria

- Koldo Azkoitia Zubizarreta, Garapen Ekonomikorako Agentzia Zerbitzuaren arduraduna.

#### Batzordekideak

- Luis Lonbide Sagastizabal, Ingurumen Zerbitzuko Ustiapen arduraduna.
- Jesús Mari Agirre Leizeaga, langileen ordezkaria.

#### Idazkaria

- Belen Txintxurreta Iparragirre, Mankomunitateko idazkaria.

Deialdi honen helburua hutsik dagoen Ingurumen teknikari lanpostu berria behin betiko betetzea da, merezimendu-lehiaketa bidez.

Balorazio Batzordea osatu ondoren, Idazkariak deialdiaren oinarrien kopia bana eman die Batzordekide guztiei, baita onartuen eta baztertuen zerrenda onartzen duen lehendakariaren ebazpenarena ere. Eskaera bakarra aurkeztu da, Mikel Jayo Eiguren, Mankomunitate honetako karrerako funtzionarioarena.

Aipatu funtzionarioak lehiaketa honetan parte hartzeko baldintza guztiak betetzen dituela egiaztatu ondoren, Balorazio Batzordeak oinarrietan jasotako merezimenduen balorazioari ekin dio.

Hona hemen aurkeztutako hautagai bakarrak lortutako puntuazioa:

#### **a) Egindako lanaren balorazioa.**

**15 puntu**

*Bete beharreko postuaren funtzio edo eginkizunei lotuta egindako lana balioetsiko da. Gehienez 15 puntu emango dira honela banatuta:*

- *Lehiaketaren xede den postuaren antzeko eduki teknikoa duen lanpostua betetzeagatik: puntu bat sei hilabeteko.*

C.I.F. P-2000001-D



*Egindako lana balioesteko, zerrendaturiko faktoreen arabera, seihileko osoak hartuko dira kontuan eta zatikiak baztertu egingo dira, Mankomunitateko lanpostuetan lanean lorturiko esperientzia bakarrik balioetsiko delarik.*

**Gehienezko puntuazioa lortu du: 15 puntu.**

2002ko irailaren 16tik, 26 seihileko, Mankomunitate honetako Ingurumen Zerbitzuko arduradun lanpostuan.

**b) Titulazioak eta gradu akademikoak.**

**3 puntu**

*Titulu akademikoak izateagatik gehienez 3 puntu emango dira, honako baremo honen arabera:*

- *Deituriko lanpostuari dagozkion eginkizunekin zuzeneko harremana dutenean: 3 puntu titulu bakoitzeko.*
- *Deituriko lanpostuari dagozkion eginkizunekin zuzeneko harremanik ez dutenean baina bai deituriko lanpostuaren jarduera-arloarekin: puntu bat titulu bakoitzeko.*

*Ez da balioetsiko lortu nahi den postuan sartzeko beharrezkoa den titulazioa.*

**3 puntu.** Ondorengo masterra balioetsi da:

"Degree of Master of Science in Environmental Analysis and Assessment"-  
University of London, 1995.

**c) Prestakuntza- eta hobekuntza-ikastaroak.**

**0,2 puntu**

*Deituriko lanpostuari dagozkion eginkizunekin zuzeneko harremana duten gaiei buruzko prestakuntza- eta hobekuntza-ikastaroak gaintzeagatik, eta horietan diploma edo/eta da bertaratze-ziurtagiria edo/eta, hala badagokio, probetxu-ziurtagiria eman bada, gehienez 3 puntu emango dira, honako baremo honen arabera:*

- *0,1 puntu 20-60 orduko ikastaro bakoitzeko, gehienez 0,6 puntu.*
- *0,3 puntu 61-299 orduko ikastaro bakoitzeko, gehienez 0,9 puntu.*
- *0,75 puntu 300 ordu baino gehiagoko ikastaro bakoitzeko, gehienez 1,5 puntu.*

**0,2 puntu.** Ondorengo ikastaroak balioetsi dira:

- Curso sobre Evaluación de Impacto Ambiental, 45 ordu, 0,10 puntu.
- Aspectos de Salud Ambiental en Áreas de Recreo, 20 ordu, 0,10 puntu.

**d) Antzinasuna.****2 puntu**

*Herri Administrazioetan zerbitzu-urte oso bakoitzeko: 0,20 puntu urte bakoitzeko, gehienez 2 punturaino. Urtea osatzen ez duten zerbitzuak hilabeteka balioetsiko dira proportzioan.*

*Ondorio hauetarako, herri-administrazioetan karrerako funtzionario-izaera lortu aurretik egindako zerbitzuak ere konputatu egingo dira.*

**Gehienezko puntuazioa: 2 puntu.**

2002ko irailaren 16tik, 13 urte eta 5 hilabete.

**e) Norberaren gradu finkatua.****2 puntu**

*Lortu nahi den lanpostuarekin erlazioan balioetsiko da gehienez 2 punturekin, honako irizpide honen arabera:*

- *Gradu bera edo handiagoa: 2 puntu.*
- *Gradu txikiagoa: puntu bat.*

**2 puntu.**

Norberaren gradua: 24

Beraz, **guztira 22,2 puntu** lortu dituenek, gutxieneko puntuazioa 15ekoa izanik, Balorazio Batzordeak aho batez erabaki du Mankomunitateko lehendakariari proposatzea MIKEL JAYO EIGUREN izendatzeko Ingurumen Teknikari lanpostua betetzeko. Proposamen hau behin betiko bihurtuko da horretarako emandako hamar laneguneko epean, erreklamaziorik aurkezten ez bada.

Goizeko 10:00etan bukatu da bilera.

Adostasunaren adierazgarri, bildutakoak akta hau izenpetu dute.

Izpta. Koldo Azkoptia Zubizarreta

Izpta.: Luis Lonbide Sagastizabal

Izpta.: Jesus Mari Agirre Leizeaga

Izpta.: Belén Txintxurreta Iparragirre